

## Adiskidetzearen ospakizuna<sup>1</sup>: Familiako bizitza 'reseteatu'

Prest izango dugu...

Ospakizun hau egiteko otoizlekua, kapera edo eliza giroturik. Aurreko saioko hausnarketa pertsonalak. Ospakizunean erabiliko ditugun gauzak: kartela Aita onaren irudiekin, saskia paperak botatzeko, su-ontziren bat paperak erretzen badira, kartulinak, guraizeak, margoak...

Harrera:

Ospakizuna gidatuko duenak ongi etorria adieraziko die partaideei (heldu eta haurrak), zer egingo den azaltzeaz batera. Aurreko saioan bizi izandakoa gogoratu eta geuretzat nahiz gure seme-alabentzat eratu nahi dugun gizaki-ereduaren inguruko multzo honi amaiera emango zaio. Haur eta gazte elkaturik, hasiera emango diogu ospakizunari.

Hasteko...

Isiltasuna egiteko, geure barruari entzuteko, hainbat ariketa egingo dugu, erlaxatzeko: jarrera eroso bilatu, gure gorputzaren atalez jabetu, burutik zarata guztiak uxatu, arnasketak egin... Lagungarri izan daiteke musika gozoa jarrita izatea...

Barruko isiltasuna egin eta giro lasaia lortu ondoren, nagusi eta txikiok "Aita onaren" edo "seme xahutzailearen" parabola (Lk 15, 11-32) entzungo dugu. Kontaketaren irudien kartela jarriko dugu, taldekideen arreta erakartzeko.

Aita onaren parabola:

*Gainera esan zien: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: "Aita, emadazu dagokidan senipartea". Eta aitak ondasunak banatu zizkien. Handik egun gutxira, seme gazteenak, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera alde egin zuen eta han, galdukeriak biziz, ondasun guztiak jan. Dena xahutu zuenean, gosete ikaragarria gertatu zen inguru hartan eta estu aurkitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako gizon batengana joan zen morroi, eta hark bere sailalara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez asetzeko gogoa ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. Orduan, pentsatzen jarriarik, bere baitan esan zuen: "Zenbat langile gure aitarenean nahi adina ogi eta gehiago dutela, eta ni hemen goseak hiltzen! Jaiki, aitarengana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago seme-izenik merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala". Jaiki eta aitaren etxera abiatu zen. Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta errukitu egin zen; eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: "Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme-izenik merezi...". Aitak, ordea, esan zien morroiei: "Ekarri bizkor jantzirik onena eta jantziozue, ipiniozue eraztuna eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua; zeren seme hau hilda bainuen eta piztu egin zait, galdua nuen eta aurkitu egin dut". Eta festa hasi zuten. Seme zaharrena soroan zen. Etxerakoan,*

<sup>1</sup> Ez da sakramentu-ospakizuna.

*hurbildu ahala, soinua eta dantzak sumatu zituen. Eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Hark erantzun: "Zure anaia etorri da eta zekor gizendua hiltzeko agindu du zuen aitak, semea onik bereganatu duelako". Biziki haserretu zen anaia eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: "Hainbeste urte da zure agindu bat ere sekula huts egin gabe zerbitzatzeko zaitudala, eta ez didazu egundaino antxume bat ere eman, lagunekin festa egiteko; eta, horko zure sema hori, zure ondasunak emagalduekin jan dituen hori, etorri dela eta, zekor gizendua hil duzu". Aitak erantzun zion: "Seme, zu beti nirekin zaude, eta nire guztia zeurea duzu! Baina egoki zen poztu eta festa egitea, zure anaia hau hilda baikenuen eta piztu egin zaigu, galdua genuen eta aurkitu egin dugu!"».*

Kontaketa entzun eta isilunea egingo dugu, musika gozoa jarrita dela, idazkiak durundi egin dezan geure barnealdean. Isilune horretan, kartelego binetei begiratu eta kontaketa berregiten saia daitezela esango diegu.

Bost-zazpi minuturen buruan, ospakizuna gidatzen ari dena hurrei zuzenduko zaie lehenik, ozen, kartelaren laguntzarekin, entzundako kontaketa gogoratzeko. Honetan jarriko dugu arreta: aita joandako semea noiz etorriko zain da eta bueltatzen denean besarkatu egiten du; etxean geratu zen semea ere maite du. Jainkoak beti maite gaitu, beti barkatzen gaitu, guk egindako gauzak oso itsusiak edo tristeak badira ere... Horregatik diogu "Jainkoaren maitasuna zoragarria dela". "El amor de Dios es maravilloso" abestia entzunez eta ikasiz adieraziko dugu hori.

Haurrak gelako txoko batera joan eta esker ona prestatuko dute.

Nola irudikatuko dugu Jainkoak digun maitasuna? Bihotza marraztu eta erdian 'eskerrik asko' hitza idatziko dugu. Hurrek idazten ez badakite, laguntzaileak lagunduko die edo, bestela, ariketa hau gurasoekin batera egingo dute.

Ospakizuna gidatzen duenak kontaketa "barneratzen" lagunduko die helduei, hausnarketa "gidatuz"... , honako ideien edo antzekoen bidez:

"Seme xahutzailearen" parabola bezala ezagutzen da batez ere kontaketa hau, baina Jesusen asmoa Aitaren ontasuna nabarmentzea da.

Aitak bi semei dien maitasunean jarri nahi dugu arreta. Aitak gauza guztien gainetik maite ditu bi semeak. Horrelakoa da gure Aita Jainkoa. Seme-alabek gauza itxusi eta txarrak egin arren, Aitak beti barkatzen ditu eta poztu egiten da elkarrekin daudenean. Jainkoaren errukiak ez du zerikusirik giza justiziaren kalkuluekin.

Testuan dei bikoitza egiten zaigu: doan eskainitako barkamenaren pozaz gozatzen eta poz hori zabaltzen jakin dezagula eta gure begiak, gure bizitza Jainkoarengana zuzen ditzagula, Jainkoarengandik eta anai-arrebengandik aldentzen gaituena aitortuz.

Aurreko saioan bizi izandakoa gogoratu eta orduko hausnarketak berreskuratu eta osatu egingo ditugu.

'Reseteatzeko', barkatzeko, barkamena eskatzeko... gogoia adieraziko diogu geure buruari... Altxatu eta idatzitako guztia jaurti edo erre egingo dugu. Papera botatzean, ozen esango dugu: "Eskerrik asko, Aita Jainkoa, eskaintzen diguzun maitasuna egia bihurtzeko beste aukera eman diguzulako". Tarteka -lauzpabost lagun- "Eskerrik asko, Jauna" abestuko dugu.

Minutu batzuen buruan, haurrak sartuko dira...

Jainkoak asko, baina benetan asko eta asko maite gituela kontatuko diete hurrek gurasoei. Horregatik marraztu eta margotu dutela bihotz bat, azalduko diete eta, aurretik egin ez badute, barruan ESKERRIK ASKO idatzi nahi dutela.

"El amor de Dios es maravilloso" edo "Eskerrik asko Jauna" abestuko dute.

[https://www.youtube.com/watch?v=cq9QKQcso\\_c](https://www.youtube.com/watch?v=cq9QKQcso_c)

El amor de Dios es maravilloso.

El amor de Dios es maravilloso.

El amor de Dios es maravilloso

¡Grande es el amor de Dios!

Tan alto que no puedo estar mal alto de Él.

Tan bajo que no puedo estar abajo de Él

Tan ancho que no puedo estar afuera de Él.

¡Grande es el amor de Dios!

